



Memoria Historikoari buruzko Zikloa

Irailan zehar, Agoitzek ohiko Memoria Historikoari buruzko Zikloa egin zuen. Hartara, hainbat ekitaldi egin zituen erregimen frankistaren errepresioaren urteei buruzko hausnarketa eta haiei oroitzapena egiteko. Zikloan egindako jarduerak memoria historikoa eta biktimen duintasuna izan zuten ardatz.

Kultur Etxeko erakusketa-aretoak "Hormigoizko Mugak" erakusketa hartu zuen, irailaren 6tik 21era. Nafarroako Memoriaren Institutuak antolatu zuen erakusketa, eta omenaldia egin zien Franco eta Hitlerren erregimen faxistetan Pirinioetako eta Atlantikoko Harresiko gotorlekuak bortxaz eraiki zituzten langileei. II. Mundu Gerran hasitako proiektu defentsibo horiek espainiar preso errepublikanoek eta beste errepresaliatu batzuek altxatu zituzten. Bizi zituzten baldintza gogorrek nabarmentzen ditu erakusketak, bi diktadoreen arteko elkarlana azaltzen du, eta hausnarketa egiten du azpiegitura horiek Europan eragin zuten inpaktu sozialaren eta orbainen inguruan.

Programazioaren hurrengo pausua "Nombres que recorren el tiempo. Mujeres asesinadas en Nafarroa 1936-1948" liburuaren aurkezpena izan zen. Amaia Kowasch Velascok eta Aitor Garjón Irigoienek idatzi zuten. Liburuaren egileak egon ziren ekitaldian, eta Gerra Zibilean eta ondorengo urteetan errepresioa pairatu zuten emakumeen historia tragikoan sakondu zen haien eskutik. 95 emakumeren historiak nabarmentzen ditu lanak, omentzeko eta ahantz ez ditzagun.

Irailaren 13an, Oroimenaren Parkea Agoitzen eta Longida bailaran frankismoaren errepresioaren 1936an erail eta errepresaliatutako pertsonen omenaldi kutuna egiteko topagunea izan zen. Sinbolismoa eta hunkiberatasuna nagusi, fusilatutako 27 pertsonak, birgaitutako 12 maisu eta maistrak, Gurseko esparruko lau errefuxiatuak eta biktima izandako zazpi emakumeak gogoratu zituzten hitzek, musikak eta loreek. Orotara, 50 izen propio, errepresioak urrututako 50 bizitza, ohoratu zituzten. Ángel Martín Unzué alkateak berretsi egin zuen herriak memoria historikoarekin duen konpromisoa: "Beren delitu bakarria justizia eskatzea izan zen, eta beren arma bakarria, itxaropena". Zeremonian, txistua, txalaparta eta Fermín Balentziaren interpreta-



zioa izan zituzten lagun bertaratuak, hunkitzera, biktimen 50 izen-abizenak banan-banan irakurri zituzten bitartean. Eta haien oroimenezko monolitoaren aurrean, auresku bat, Bultzada Sor-kuntza Taldeak koreografiatu eta interpretatua, Agoizko Txistulari Taldearen soinuarekin eta Oihane Jaso eta Valles Rípodas abeslarien ahotsekin. Memoria bizirik mantentzearen garrantzia azpimarratu zuen alkateak, eta hamarkadetan ezarritako isiltasuna salatua.

Aurten, zikloak Otsondoko bunkerren eremura txangoa barne hartzen zuen. Baztanen bunkerren eta egitura militarren eraikuntza aztertzea eta memoria historikoaren testuinguruan duten esanahiari buruz hausnartzea zuen helburu jarduerak, baina bertan behera geratu zen ez zelako nahikoa jenderik bildu bidaia egiteko.

Iluna Producciones-ek ekoiztutako "Ezkaba" antzezlanak eman zion amaiera zikloari. Ezkaba mendiko

San Cristobal presondegiko historia gogora ekartzen du obrak; zinez hunkigarria da eszenaratzea, ahots ematen baitie han sufritu zuten presoei. Miguel Goikoetxandiaren zuzendaritzapean, Gerra Zibilean eta gerraostean preso politikoei bizi izan zituzten baldintza ankerak esploratzen ditu lanak. Memoria eta erresistentzia uztartzen dituen narratiba lagun, frankismoaren eraginaz eta gogoratzearen balioaz gogoeta egitera gonbidatzen du antzezlanak.



Agoitzek, Artzibarrek, Longidak eta Orotz-Beteluk nabe baten erabilera partekatua adostu dute

Agoizko Udalak hitzarmena onetsi du osoko bilkuran, Itoizko urtegiak kaltetutako lau udalerriek—Agoitz, Artzibar, Longida eta Orotz-Betelu—Agoizko Enpresen Haztegia nabe bat modu partekatuan erabiltzeko konpromisoa ezartzeko; Nasuvinsa sozietate publikoak kudeatzen du nabea. Akordioak bi helburu ditu: alde batetik, ondarea (objektuak, irudiak eta dokumentuak) jaso,

zaharberitu eta kontserbatzeko espazio izatea, eta, bestetik, tokiko langileen enplegarritasuna hobetzera bideratutako prestakuntza-praktikak egiteko leku bat eskaintzea.

Nabeak 181 m² ditu, eta, hasiera batean, bost urterako alokatuko da, zortzi urtera arte luzatzeko aukerarekin; errenta aldiz aldiz igoko da, eta hasierakoa 272,12

euro hilean izango da. Alokairua eta mantentze-gastuak lau udal-ordainduko dituzte, honela: Agoitzek % 47, Artzibarrek eta Longidak % 24, eta Orotz-Beteluk %5. Bestetik, Agoitzek kudeatuko ditu ordainketak. Akordioari esker, gainera, prestakuntza-jardueretarako utzi ahalko dute lekua, eta lortutako dirua instalazioaren kostu operatiboak murrizteko erabiliko dute.

Nafarroako Gobernuak eta Agoitzek berrindustrializazioa birraktibatu dute, Flamasats irten ondoren

Nafarroako Gobernuak eta Agoizko Udalak herriko ekonomia susper-tzeko ahaleginak areagotu dituzte, Flamasats enpresaren proiektua bertan behera geratu ostean. Enpresak fabrika bat sortu nahi zuen herrian Clipper pizgailuak egiteko. Proiektuak 250 lanposturaino sortzea aurreikusten zuen, baina enpresak atzera egin zuen, 2024ko uztailean. Ondorioz, areagotu egin da eskualdeak berez bizi duen egoera ekonomikoa, 2020an Siemens Gamesa itxi izanak eragindakoa.

Egoerari buelta emateko asmoz, joan den irailaren 26an, Agoitzen, lan-mahai partekatua baten lehen bilera egin zuten Nafarroako Gobernuak, udal-ordezkariek eta tokiko hainbat elkartetan. Helburua eskualdeko garapen ekonomikoa, sozial eta enpresariala bultzatzeko plan estrategikoa bat taxutzeko zen. Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologikoa eta Digitalerako Departamentuko Mikel Irujo kontseilaria buru zela, bost departamentu aritu ziren Foru Gobernuaren ordezkartzan, eta hark argi eta garbi

erakusten du arazoa Gobernuaren lehenetsunetako bat dela.

Ángel Martín Unzué Agoizko alkateak gogora ekarri duenez, 2007ko krisian hainbat enpresa itxi izanak, hala nola Solano eta Cotalsa, eragindako egoeratik suspertu ezinik jarraitzen du herriak, eta Flamasatssek ihes egin izanak larriagotu egin du egoera; ondorioz, tokiko langabezia-tasa % 10,54 da, Nafarroako batez bestekoaren oso gaineratik. Eskaera nagusien artean, alkateak eskatu zion Nafarroako Gobernuari lurzoru industrial gehiago erosteko, enpresa berriak instalatu ahal izateko, eta biomasazentro logistikoa berraktibatzeke, behar baino gutxiago erabili baita sortu zenetik. "Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu behar du bankuen esku dauden industrialdeko 40.000 metro koadroak titulartasun publikora pasatzeko. Halaxe egin zen Nasuvinsak erositako 30.000 metro koadroekin, eta hantxe kokatu da orain Madergia. Adibide horrek formulak funtzionatzen duela erakusten du", adierazi zuen Unzuék.

Nafarroako Gobernuak funtsezko ekimenak babestu ditu azken urteotan; besteak beste, Madergiarekin lankidetzan aritzea—eraikuntza jasangarria bultzatzeko eta enplegu berriak sortzeko— eta bioerregai aurreratuak garatzea CENERen —biomasaren bulegoa abian jarri da—. Hala ere, tokiko agintarien ustez, beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea eta, adibidez, migratzaileak laneratzeko zentro bat sortzea; izan ere, migratzaileak dira lana bilatzen duten pertsonen ehuneko handi bat.

"Agoitzek potentzial handia du, baina aparteko zailtasunak izan ditu", adierazi zuen Irujo kontseilariak; horrez gain, esan du Nafarroako Gobernuak lanean jarraituko duela udalarekin eta tokiko erakundeekin eskualdeari benetako soluzio jasangarriak eskainiko dizkion berrindustrializazio-estrategia bat finkatzeko. Lan-mahai hori agenda koordinatu baten lehen urratsa da, egoera ekonomikoa korapilatsua hazkunderako aukera bihurtzea helburu.



VIVEROS DE EMPRESA DE AOIZ
AGOIZKO ENPRESA-MINTEGIA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Nasuvinsa
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

AYUNTAMIENTO DE AOIZ
AGOIZKO UDALA

Iratiko Natur Bidearen partaidetza-prozesua

Agoizko Udalak bat egiten du Iratiko Bide Naturala martxan jartzeko partaidetza-prozesuarekin. Proiektu handinahia da, lurraldea biziberritu eta dinamizatu nahi baitu trenbide zaharraren ibilbidea berreskuratuz. 2024ko irailaren 17tik urriaren 10era bitartean egingo da prozesua, eta bideak zeharkatzen dituen bederatzita udalerriak hartzen ditu barne, Eguesetik Zangozaraino. Lau fasetan egituratzen da: paseo-foroak, ideia-jasak, mapatze kolektiboa eta itzulera-foroak.



Iratiko Natur Bideak 50 kilometro luze du, eta 5,2 milioi euroko inbertsioa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak finantzatuko duena. Lanak 2022ko irailan hasi ziren, eta 2025. urtearen amaierarako amaitzea aurreikusten da. Helburua da trenbide zaharra bide berde bihurtzea, inguruko garapen ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa bultzatzeko.

Partaidetza-prozesuak tokiko herritar eta erakundeen ideiak eta proposamenak bildu nahi ditu, bide berriaren balioak, funtzioak

Hiri-espazio jasangarriak diseinatzeko

Agoizko Udalak partaidetza-prozesu berritzailea abian jarri du, bereziki gazteentzat pentsatua, herriko hirigintza-etorkizuna ardatz hartuta. Proiektua Nafarroako Gobernuak hirigintzan ekintza berritzaileak sustatzeko egindako deialdietatik sortu da, eta gazteak lehenestea du helburu; izan ere, zokoratu egin ohi dituzte gazteak erabakiak hartzerakoan.

Proiektuak "Agoizko gazteria. Hiri-espazio jasangarriak diseinatuz" du izena, eta hainbat zinegotzigok

eta zerbitzuak zehazteko. Cederna Garalur elkarte eta Ahora Clima aholkularitza koordinatzen ari dira prozesua. Agoitzen, urriaren 2an egin zuten mapeatze kolektiboko foroa, eta herritarrek beren ideia eta iritziak ekarri ahal izan zituzten han.

Prozesua abiatzeko ekitaldian, Jose María Aierdi Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak azpimarratu zuen garrantzitsua zela herritarrek proiektu handietan parte hartzea, eta Iratiko Natur Bidearen helburua

osatzen dute, besteak beste, hirigintzak, gazteriak eta ingurumenak. Gazteen ikuspegitik espazio urbano eta periurbano jasangarriak diseinatzea du helburu, ekonomia-eta ingurumen-jasangarritasunaren garrantzia aitortuta.

Prozesuak bost saio izango ditu hilabete eta erdian, eta, besteak beste, foroak eta paseoak egingo dira Agoizko hiri-ingurunean barna, gazteek espazioei behatu eta haiei buruz gogoeta egin dezaten. Horrez gain, ideia-jasak

hauxe zela esan zuen: "pertsonek guztiak senti eta bizi dezatela".

Ekimenak ingurumena errespetatu eta lurralde-koherentsia bultzatzen duen garapen jasangarriko eredu bat sustatzeko ahalegin bateratua islatzen du. Partaidetza-prozesuaren emaitzak ibilbide-orri bat egiteko erabiliko dira. Ibilbide-orriak, azken finean, Iratiko Natur Bidea amaitzea eta balioan jartzea gidatuko du, inplikaturako udalerririk guztientzako baliabide preziazatu eta funtzional bihurtu dadin bermatzeko.

egiteko tailerrak eta diseinatu eta planifikatzeko saioak egingo dira, eta proposamen zehatzak eta bideragarriak, bai hirigintzaren aldetik, bai ekonomiaren aldetik, sortuko dira prozesua amaitzeko.

Amaitzeko, ospakizun bat egingo da, non parte-hartzaileek beren ideiak islatuta ikusiko baitituzte. Udalak azpimarratu du oso garrantzitsua dela gazteak aktiboki inplikatzea, haiek bizi eta baliatuko baitute Agoitzeko etorkizuneko hirigintza.

Aldagela berriak futbol-zelairako

Agoizko Udalak Construcciones Leache SL enpresari adjudikatu dio "Nuevo San Miguel" futbol-zelairaren aldagela berriak eraikitzeke proiektua. Obra hasia da jada, eta 183.980 euro jotzen du, BEZa kanpo. Tokiko kirol-instalazioak hobetu beharra zegoen, talde federatu ugari erabiltzen baitituzte, eta obrak behar hori ase nahi du.

Hartara, beste bi aldagela egingo dira jokalarientzat, eta beste bat, arbitroentzat. 85,10 metro koadroko azalera izango dute guztira, eta erosoagoak izango dira; haiei esker, arinago programatu dira partidak, murriztu egingo baitira haien arteko atzerapenak. Gaur egun, Club Deportivo

Atiz / Agoizko Kirol Elkarteak 155 jokalaritari hainbat kategoriatan. Kopuru handia da hori, eta aldagelen egoera jasanezina zen jada.

Obrak egiteko epea sei hilabete da.

Hori da, hain zuzen, Agoizko Udalak Itoizko urtegiak inguruan eragiten dituen kargak eta lurralde-inpaktua konpentsatzeko jasotzen duen partidaren kontura aurreikusitako bi jarduketetako bat.



Agoitzek "Kanpo lana" programa ezartzeko hitzarmena sinatu du

Agoizko Udalak hitzarmena sinatu du Hezkuntza Departamentuarekin "Kanpo lana" programa tokiko eskoletan aplikatzeko. Ekimenak alternatiba bat eskaini nahi du ikasle batek jarrera disruptiboak dituenengan. Zehazki, prestakuntza-eta gizarte-jardueretan parte hartzea proposatzen du, kanporatu beharrean. Zigorak jaso beha-

rrean, ikasleek beren portaeraren inguruan hausnartu, egindako kaltea konpondu eta balioak, hala nola erantzukizuna eta errespetua, garatu ahalko dituzte.

Hartara, Agoitzek hezkuntza inklusibo eta ordaingarri baten aldeko konpromisoa berresten du, elkarbizitza positiboaren

printzipioekin bat. Hainbat gizarte-erakunde lagunduko duten programan, gazteak jardura komunitarioetan sartzea sustatzea helburu, haien beraien zein ingurunearen onurako. Ikuspegi berritzaile horrek berrerortzea murriztu eta eskola-bizikidetzak hobetu nahi du heziketa-prozesu gizatiarragoen bidez.



Dirulaguntza Musika Eskolarentzat

Udaleko musika-eskolen mantentze eta funtzionamendurako laguntzen deialdia ebatzi du Hezkuntza Departamentuak. Agoizko Musika Eskolako Patronatuak 26.025 euro jasoko ditu, zehazki. Deialdi horren arabera, musika-eskola bakoitzak 6.000 euro jasoko ditu gehienez, 2022/2023 ikasturtean eskolan matrikulatutako ikasle bakoitzeko, baldin eta 2023/2024 ikasturtean Lanbide Heziketako edo Goi Mailako Hezkuntzako musika-ikas-keta arautuen zentro batean sartu bada.

Laguntzak hainbat irizpideren arabera ematen dira, hala nola matrikulatutako ikasle kopuruaren eta musika-espezialitate motaren arabera. Nafarroako gazteen kul-



tura- eta prestakuntza-garapenari lagundu nahi zaio horrela.

Laguntza hori gorabehera, Agoizko Udalaren Musika Eskolaren 2024. urteko aurrekontu osoak 192.700 euro jotzen du, eta horietatik

90.683 udalak jarriko ditu. Ikasleen matrikulak eta diru-sarrerak bat datoz. Langileen ordainsariak (140.000 euro) eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ekarpenak (44.000 euro) dira gastuen partida nagusiak.

Elikagaien bankua Izagako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean

Zenbait urtez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak oinarritzko elikagaiak banatzeko programa bat egin zuen haien beharra zuten familientzat. Elikagai Programa horrek baliabide ekonomiko urriak zituzten familien gabeziak estaltzea zuen helburu, eta Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsaren bidez garatzen zen, hainbat gizarte-erakunderekin elkarlanean; Gurutze Gorria arduratzen zen, hain zuzen, gauzatzeaz.

2024an, Espainiako Gobernuak erabaki du autonomia-erkidegoek hartu behar dutela beren gain programa, eta ez gizarte-erakundeek, orain arte bezala. Ardura Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuarena da. Hala ere, Nafarroako Gobernuak



jakinarazi du ez dela elikagai-programa hori ezarriko, badirelako Nafarroan beste prestazio sozial batzuk autonomia-erkidegoan elikadurarako sarbidea bermatzeko.

Hori dela eta, jakinarazten dugu Izagako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak ez duela jada zerbitzu hori ematen, goi-mailako erakunde publikoek ez baitute elikagai-programa berretsi. Hala ere, Elizbarrutiko Caritasen parrokiek banaketa kudeatzen jarraitzen dute, eta parrokia horiek baloratu beharko dute nork jaso zerbitzua.

Izagako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean aztertzen ari gara elikagai-laguntzarako beste programaren bat ezartzeko aukera, baina oraindik ez da plan zehatzik zehaztu.

Arrakasta itzela Agoizko Zokoan

Pasa den igandean, irailak 8, Agoitzek goiz zirrargarria bizi izan zuen Zokoa azokaren eskutik. Funtsezko ekitaldia bilakatu da jada herriko agendan. Bosgarren edizio honetan, antolatzaileek espero baino arrakasta handia lortu du Zokoak. Izan ere, jende asko bildu eta parte hartu zuen, bai herriko jendea, bai inguruko herri eta ibarretako bisitariak.

10:30etik, Agoizko kale-multzo nagusia, Mendiburua eta Nafarroa Beherea plazen artean, artisauro-erakunde postuz bete zen. Haietan, 45 merkatarik baino gehiagok beren produktuak eskaini zituzten, hala nola gaztak, gozotzako produktuak, larruzko artikuluak, imitaziozko bitxiak eta erremedio naturalak. Toki askotako ekoizleak etorri ziren, Iruñetik, Tafallatik eta Artiedatik, esate baterako, baita Gipuzkoa eta Huescako herri batzuetatik ere, eta haien eskaintza anitzak jende asko erakarri zuen.

Eguneko ekitaldia arrakastatsuenetako bat, zalantzarik gabe, Zokotonbola izan zen. Bi orduan

4.000 txartel baino gehiago saldu ziren, inoiz baino gehiago, eta 600 sari baino gehiago banatu ziren. Zokoaren antolakuntzak 10 euro ematen dizkio establezimendu bakoitzari, eta, trukean, beren produktuekin eta/edo zerbitzuekin laguntzen dute. 45-50 negoziok guztira parte hartu zuten, eta hainbat elkartek ere; beraz, tonbola herriko eskaintzaren adierazgarri da.

Jarduera komertzialaz gain, programazio kultural eta ludiko zabal ere eskaini zuen Zokoak. Agoizko Erraldoi eta Gaiteroen Konpartsak kaleak girotu zituen lehen ordutik, eta La Txula Potraren (Julia Itoiz) eta herriko artisten (Oihane Jaso, Josu Magallón, Xabier Dendarieta eta Hodei San Martín) kontzertuek festa-giroari eutsi zioten. Txikienek ere gozatu zuten beren jarduerekin, aurpegi-margoketarekin eta hennazko tatuajeekin, esate baterako, eta ondarea maite duten pertsonen, berriz, El Irati S.A. erakusketarako bisita gidatuetan parte hartu zuten, Victor M. Egia Astibia industria-ondarean adituaren eskutik.

Iñigo Txibiteren forja-erakustaldiak biribildu zuen saioa.

Irati Bizirik kolektiboak antolatzen du Zokoa, boluntario-talde bat lagun duela, eta guzti-guztiak oso pozik agertu ziren aurtengo edizioaren emaitzekin. "Proiektu honek balioa ematen die landa-bizitzari eta merkataritza txikiari. Dagoeneko bost edizio daramatzagun honetan, Zokoak jarraitpena eta babes berezi duela uste dugu, eskualdea dinamizatzen jarraitzea helburu", adierazi zuten. Horrez gain, ekitaldiaren izaera autogestionatua nabarmendu zuten; izan ere, txartelen salmentaren bidez eta tokiko merkataritza eta ostalaritzarekin zuzenean kolaboratuz finantzatzen da.

Zokoaren arrakastak berretsi egiten du Agoitzek gertuko merkataritza sustatzeko eta landa-eremuko bizimodua biziberritzeko duen konpromisoa. Jardunaldiak, tokiko produktuen erakusleho izateaz gain, merkaturatua topaketa eta ospakizunetarako gune gisa ere sendotu zuen.



1917an billeteak faltsutzeari buruzko ondarea jaso du Agoitzek

Agoizko Udalak dohaintza garrantzitsua jaso du. Tokiko historiaren pasarte ilun bat argitzen du, gainera. Nagoreko bizilagun eta "Billetes falsos en Navarra (1917)" liburuaren egile Gerardo Huarte Ilárrazek liburua idazteko erabilitako ikerketa- eta dokumentazio-material guztia utzi dio udalari. Espediente judizial osoa jasotzen du, 2.000 orri baino gehiago, baita garai hartako prentsa-zatiak ere, duela mende bat baino gehiago 100 pezetako billeteak faltsutzeari kasua xehatzen dutenak. Gertakizunak herria astindu zuen bere garaian.

Auziak Faustino Lizasoain eta Policarpo Sagasti nahastu zituen, Agoizko auzitegiko medikua eta Nagoreko tabernaria, hurrenez hurren, besteak beste, eta epaiketa entzutetsu bat ekarri zuen,


Nafarroa osoaren arreta bereganatu zuena. Huarte Ilárrazen dohaintzari esker, ikertzaileek eta jakin-mina duten guztiek zehatzago ezagutuko dute tokiko historiaren gertaera liluragarri hori. Haren eskutik, gainera, Nafarroako Pirinioaurreko bizimodua XX. mendearen hasieran ezagutuko dute.

Agoizko alkateak eskertu egin du egilearen eskuzabaltasuna, eta agiri horiek herriko ondarearentzat duten balio historiko eta kulturala ere nabarmendu du.



Argazki Lehiaketaren XIX. edizioa

Agoizko Udalak, Kultura eta Festetako zinegotzigoaren bitartez, «Agoitz Hiria» argazki-lehiaketaren beste edizio baterako deialdia



egin du. Guztira 800 euro banatuko ditu saritan. Udalak Agoizko une eta agertoki esanguratsuenak hartzera animatzen ditu argazki-lehiaketaren hemeretzigarren edizio honen parte-hartzaileak. Izan ere, oinarriek derrigorrezko baldintza gisa ezartzen dute argazkien gaia Agoitz hiria izanen dela: paisajea, hirigintza, ondarea, ohiturak, jaiak, jendea... Originalak izango dira, argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren batean saririk jaso ez dutenak. Gainera, zuri-beltzean nahiz koloretan izan daitezke.

Lehiaketak bi modalitate ditu. Orokorra, herritar guztientzat, eta Herritarrena, Agoitzen errol-datutako pertsonentzat soilik. Deialdiak bi sari ditu: bata, 500

eurokoa, modalitate orokorarentzat, eta bestea, 300 eurokoa, herritarrenarentzat. Aurkeztutako lanekin Kultur Etxean egingo den erakusketaren inaugurazioan emango dira sariak. Urriaren 18ko 13:00ak arte eman daiteke izena.

Epaimahaiak erabakiko du modalitate orokorreko argazkirik onena. Gainera, hiru irudi aukeratuko ditu, eta herritarren artean bozkatuko dute "Herritarren sari" modalitateko argazki irabazlea zein den. Bozketaren zehaztasunak behar bezala jakinaraziko dira udalaren ohiko hedabideen bitartez.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu oinarriak hemen: www.agoitz.eus

Balantze kulturala

Agoizko kultur agendak programazio oparoa eskaini zuen irailean: Memoria Historikoari buruzko Zikloa, Agoizko Zokoa eta San Migelen omenezko ospakizunak. Dantza ere proposamen nagusietako bat izan zen, Kultur-Izan programaren bidez. Nafarroako musika, dantza eta ahozko adierazpen herrikoien hedakuntza eta sustapena ditu helburu programak. Ildo horretatik, Kultur Etxeak Led Silhouette konpainiaren "Lertxunaren Hegada" emanaldia hartu zuen. Dantza

garaikidea eta Nafarroako tradizioko elementuak uztartzen dituelanak. San Migel jaiek agramondarren eta beaumontarren arteko bakearen sinaduraren berregite historikoa hartu zuten. Halaber, kardarien ofizioa erakutsi zuten, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan. Ekitaldi nagusiak Puro Relajo taldearen kontzertua eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren "Ez gara jaitziko!" ikuskizuna izan ziren. Jende ugari erakarri zuen azken horrek, eta amaiera arrakastatsua eman zion

kultur egutegiari. Halaber, ikasurtearen hasierarekin batera, Agoizko Udalak urritik maiatzera eskainitako ikastaro eta tailerretan izena emateko epea zabaldu zen. Hona hemen egin daitezkeen jarduerak: antzinako gauzen zaharberritzea, helduentzako pintura (oinarrizko mailan eta maila aurreratuan), arte plastikoak (euskaraz) haur eta gazteentzat, eta irakurketa-kluba (gaztelaniaz eta euskaraz). Berrikuntza gisa, jostakuntza jasangarria egiteko tailer bat ere badago.



Euskara ikastearen aldeko kanpaina

"Euskera ahora" kanpaina berria abiatu du Euskarabideak, 35 tokiko erakunderekin elkarlanean —tartean Agoizko Udalak—, helduen artean euskara ikastea sustatzeko xedez. Matrikulazio-kopuruak gora egiten jarraitzea du helburu kanpainak —iaz 5.550 lagunetik gora izan ziren—, eta aukera berriak eskaintzen ditu jende gehiago gertura dadin euskarara.

Aurten, Euskarabideak % 20 handitu ditu ikasleentzako dirulaguntzak. Hartara, 475 eurorainoko laguntzak jaso ahal izango dituzte ikasleek euskara-ikas-taroetarako. Kanpaina bereziki gazteentzat da, eta hauxe hartu

du oinarri: zer-nolako esperientzia pertsonal eta profesional aberasgarriak eragin ditzake euskara jakiteak. Horretarako, hainbat publizitate-ekintza egin dira, hala nola iragarkiak sare sozialetan, markesinetan eta tokiko hedabideetan. Agoizko Udalak, beste entitate batzuekin batera, aktiboki parte hartzen ari da kanpainaren zabalkundearen, udaleko euskara-zerbitzuen bidez eta dirulaguntzak eta baliabide informatiboak eskainiz.

Aurkezpenean, Nafarroako Gobernuaren, tokiko erakundearen eta euskara irakasteko zentroen —hala euskaltegi publikoak nola gizarte-ekimenekoak— arteko

elkarlana nabarmendu zuten, hamarkadak daramatzatelako hizkuntzaren ikaskuntza bultzatzen.



Agoizko Mendi Lasterketaren VIII. edizioa

Irailaren 15ean, igandearekin, Agoizko VIII. Mendi Lasterketa jokatu zen. Hemen dago berriro, beraz, Nafarroako Kopa, udako geldialdiaren ondoren. 150 parte-hartzaile inguru bildu zituen norgehiagokak. Bi ibilbide exigente zituzten aukeran: 21,5 kilometrokoa, bata, 1.400 metroko desnibel positiboarekin, eta 11,5 kilometrokoa, bestea, 700 metroko desnibelarekin. Agoitz herria eta Irati ibaia inguratzen dituzten mendi eta magaletan barrena ibili ziren biak.

Iñigo Maciasek irabazi zuen luzeagoa. Hasieran loar Tabar bidaide izan bazuen ere, bere erritmoa bigarren erdian nagusitu, eta bakarrik iritsi zen helmugara. Eneko Esparzak lortu zuen bigarren postua, borroka estu-estua izan zela. Emakumezkoetan, Ane Elzaurdia izan zen protagonista nagusia. Izan ere, bere kategorian irabazteaz gain, zortzigarren postuan ere amaitu zuen kategoria ab-

solutuan. Eztizen Duque eta Nerea Amilibia ere igo ziren podiumera.

Lasterketa motzean, 11,5 kilometrokoan, Joseba Erro Aurizberriko korrikalaria nagusitu zen, eta, haren atzetik, Edu Esteban zizurtarra eta Markel Barrio agoiztarra iritsi ziren helmugara. Emakumezkoetan, Izaskun Olleta iraupen-lasterkari iruindarra izan zen azkarrena, eta Marisa Itoiz agoiztarrarekin eta Marian Luce-

rarekin, bigarrena eta hirugarrena, hurrenez hurren, partekatu zuen podiuma.

Taldekako sailkapena ere izan zen: talde bakoitzak gutxienez hiru kide izan behar zituen, emakume bat gutxienez barne. Lehiaketarako pizgarri berezia izan zen, zalan-tzarik gabe. Eguraldia ezin hobea izan zen, eguzkitsua eta tenperatura freskoak, eta lasterkariak bete-betea gozatu zuten eguna.



Kirol-programa 2024-25

Kanpondoak 2024/2025 ikasturteko kirol-jardueren programan izena emateko epea ireki du, hainbat berrikuntza eta hobekuntzarekin aurten. Langileen prestakuntza eta kualifikazioa hobetzearen aldeko apustu sendoa egin dute, eta, horrez gain, teknologia aurreratua erosi da taulak kontrolatzeko eta entrenamenduen jarraipena egiteko.

Aurreko urteetan bezala, erabiltzaileen iradokizunak eta proposamenak kontuan hartu dira jarduerak egokitze eta hobetzeko. Aukera berriak gehitu dituzte aurten, hala nola martxa nordikoa, hipo-pilatesa eta fitnessa, behar guztietara egokitutako kirolak eskaintzeko asmoz.

Helduentzako eskaintza zabala da, astelehenetik larunbatera. Euskararen aldeko apustu garbiaren adierazgarri, jarduera berriak sartu dira hizkuntza horretan, Euskal Zikloa nabarmentzen delarik.

Adinekoentzat, goizeko jarduerak bi ordu luzatu dira aurreko ikasturtearekin alderatuta. Pilatesa eta mugikortasuna dira protagonista nagusiak, baina yoga egiten jarraituko da. Gazteek, berriz, dantza, taekwondo eta igeriketa izango dituzte aukeran; azken hori, gainera, euskaraz edo elebitan egin daiteke.

Iazko arrakasta ikusita, Gazte Parrillak jarraituko du. Bereziki

gazte eta nerabeentzat da kirol-eskaintza, kirola ingurune seguru eta dibertigarrian sustatzea ardatz. Garapen fisiko eta mentala sustatu nahi du, entrenamenduaren bidez

Jarduera guztiek indarrean dagoen araudia betetzen dute, kirola egitean ahalik eta segurtasun handiena bermatzeko. Hainbat modalitate eta diziplina eskaintzen dira, hala Agoizko nola eskualdeko haur eta herritarrek udal-instalazioak balia ditzaten.

2024/2025 denboraldirako kirol-jardueren programa berria Kanpondoaren webgunean kontsulta daiteke.